



ESPLORATZAILEAK

Materiala:

- ☉ Begiak margotzeko arkatza edo antzeko zerbait.
- ☉ Txorroskiloa.

Jokatzeke era:

- ☉ Jokalariei kopetan beraiek aukeratutako zenbakia idatzi.
- ☉ Jokalariek saiatu behar dute nork bere zenbakia besteen begiradatik ezkutatzeko eta besteen zenbakia ikusten.
- ☉ Denei zenbakia idatzi bitartean eskuez estali dezakete.
- ☉ Ere mugatu jakin batean daudela eta 3, 2, 1 kontatu ondoren ekingo diote besteen zenbakien bilaketari.
- ☉ Jokalari batek beste baten zenbakia ikusten duenean, haren izena eta zenbakia ozen esan eta bigarren hori kanporatua izango da.
- ☉ Horretarako, jokalariek eskuak atzean eduki behar dituzte, izan ere ezin dute eskurik erabili zenbakiak ezkutatzeko; eta kopetak garbi egon behar du: txapelik ez, ilerik ez...
- ☉ Jokalariak gutxitu ahala, eremua ere txikiago egin daiteke.
- ☉ Azkenean, jokalari bakarra geldituko da.

